


# A-8 autobidean, obra-lanak daude 10 kilometro**AN**.

(mugatu singularra)



A-8 autobidean, obra-lanak izango dira 10 kilometro**AN**.



Hamar kilometroko tarte batean izango dira obra-lanak:  
25. kilometrotik 35. kilometrora bitartean.

# A-8 autobidean, obra-lanak izango dira 10 kilometro**TAN**. (nahasgarria)

Galdera: zenbat kilometroan...?

## Adibideak

- Ez dute Lurraren grabitate-indarrari ihes egiteko indarrik, ezta espazioan **dozenaka milioi kilometroan** gidatzeko mekanismorik ere.

*Ia denaren historia labur bat*, Bill Bryson / Ixiar Iza (Elhuyar, 2009), 205. or.  
**[dozenaka milioi kilometroko tarte batean]**

- Bolada batean egin dugu aurrera, zirkulazio gutxi dago bidean, **berrehun kilometroan** ez dugu polizia-ibilgailu bakar bat ere topatu.

*Lagun armatua*, Raul Zelik / Edorta Matauko (Txalaparta, 2009), 270. or.  
**[berrehun kilometroko tarte batean]**

- Autoak babes egitura jo, eta hautsi egin zuen; **hiruzpalau metroan** hegan egin eta, muturrez, bide lasterreko eskuin lerroaren gainean lehertu zen.

*Limoi bat imintziorik egin gabe jaten baduzu*, Sergi Pamies / Gerardo Markuleta (Txalaparta, 2011), 11. or.  
**[hiruzpalau metroko tarte batean]**

## Adibide gehiago

- Errautsa gogortu egin zen, eta haien oinatzak gorde zituen **hogeita hiru metroan baino gehiagoan**.

*Ia denaren historia labur bat*, Bill Bryson / Ixiar Iza (Elhuyar, 2009), 422. or.

- Hala, esate baterako, **10 kilometroan** laster egitea **2.500 metroan** igeri egitearen parekoa izango litzateke; era berean, **40 kilometroan** laster egitea **100 kilometroan** bizikletaz ibiltzearen parekoa da, eta **3 kilometroan** igeri egitea, berriz, **30 kilometroan** bizikletaz ibiltzearen parekoa.

*Kirol-entrenamenduaren oinarriak eta kontzeptuak*, García, J.M., Navarro, M. eta Ruiz, J.A./Ormaetxea, I. eta Gabilondo, N. (UPV/EHU, 2012)

- Paisaian oso argi ikusten direnez, lehenik, goi-tentsioko linea elektrikoek eta haien dorre handiek emango digute atentzioa, **dozenaka edo ehunka kilometroan** hedatzen baitira.

*Energia elektrikoaren sistemen analisisa eta operazioa*, Gómez Expósito, A./Urresti, I. eta Imaz, I. (UPV/EHU, 2012)



Bi urte**TAN** ospatu zuten garaipena.

(mugagabea)

Hiru egun**EAN** ospatu dute garaipena.

(mugatu singularra)



Bi urte**TAN** ospatu zuten garaipena.

1998an eta 2011n ospatu zuten garaipena.

Galdera: zenbat urte**tan**...?



## Hiru egun**EAN** ospatu dute garaipena.

(Hiru egunez ospatu dute garaipena. / Hiru egun ospatu dute garaipena.)



Garaipenaren ospatzeak hiru egun iraun du:  
otsailaren 1ean hasi, eta otsailaren 3an bukatu da.

Galdera: zenbat egun**ean**...?

# Hiru egun**ETAN** ospatu dute garaipena. (nahasgarria)

## Adibideak

- Bada, zeregin latz horretan **hiru egunean** jardun behar izan zuten.  
*Azeria eta Lehoia, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2007), 292. or.*  
**[hiru eguneko denbora-tartean]**
- Erritmo horretan, bakterio bakar batek **bi egunean** sor ditzake unibertsoko protoiak baino ondorengo gehiago.  
*Ia denaren historia labur bat, Bill Bryson / Ixiar Iza (Elhuyar, 2009), 294. or.*  
**[bi eguneko denbora-tartean]**
- **Sei urtean** ez dugu baserriko tomaterik jan.  
*Errotik, Gotzon Barandiaran (Susa, 2010), 161. or.*  
**[sei urteko denbora-tartean]**
- **Hamahiru urtean** errepikatu den itzultze alernoaren alde amesgaiztia (...) gehiago ez da gertatuko.  
*Olatu bat kuartelen gainetik, Xabier Amuriza (Lanku, 2009), 40. or.*  
**[hamahiru urteko denbora-tartean]**



## Adibide gehiago

- Ondoren bere baselizara eraman zituen, eta han jaiak eta jateak ibili zituzten **hamaika egunean** atertu barik.  
*Ulenspiegelen elezaharra, Charles De Coster / Koldo Izagirre (Elkar/Alberdania, 2007), 41. or.*
- **Urte askoan** erre gabe egon ostean, aitak zigarreta bat piztu du.  
*Limoi bat imintziorik egin gabe jaten baduzu, Sergi Pàmies / Gerardo Markuleta (Txalaparta, 2011), 35. or.*
- Jakien gainera oldartu ziren, **egun askoan** ezer irentsi izan ez balute bezala.  
*Brodecken txostena, Philippe Claudel / Itziar Diez de Ultzurrun (Igela, 2011), 246. or.*
- Ugazabak hilik ziren, erantzun zion hark, eta haien seme-alabek ez zituztenez jabetzaren gaineko zergak ordaindu **hainbat urtean**, hiria zen orain etxearen jabe.  
*Sunset Park, Paul Auster / Oskar Arana (Alberdania, 2010), 80. or.*
- Erregai-pilarekin dabilzan autoen autonomia 500 kilometrora inguratzen ari da, eta espero da **urte gutxian** gainditzea muga hori.  
*Energia berriztagarriak. Eskuliburu teknikoa, Esteire, E., Madrid, A. eta Madrid, A./ Imaz, A. (UPV/EHU, 2012)*